



48. Euskal Zine Bilera

2025 Urriak 16–21
Lekeitio

Aurkez- pena



48

Lekeitzio 2025
Urriak 16-21

48. EUSKAL ZINE BILERA: ZINEAREN ZIRRIKITU GUZTIAK

700 urteko historian eraiki dira ba hainbat istorio. Harriz harri, geruzaz-geruza, fotogramaz-fotograma. Istorio horietako batzuk agian, harri arteko zirrikitu batean gordeta egotetik, zine-pantaila batean jarraitu ahal izan duten bere bidea. Pixelez pixel eraikitzen den harresiaren moduan, ikusi eta entzun daitekeen historia kontatzen jarraitzeko.

Euskal Herrian euskara hutsez egiten den zine jaialdirik zaharrenak, 700 urte bete dituen herria du babesleku. Behin herria bebesten zuen harresi hark, seguruenik, milaka istorio jaso ditu bere harrien artean. Izan ere, harresia zena pantaila bat izan baitaiteke apur bat pentsatu ezker. Harri bakoitza film batean deseraiki genezake, eta zirrikitu bakoitzetik istorio bat atera. Horma zena elkargune bilakatuko dugu, eta gotortu gaitezen euskarazko sorkuntzan.

www.zinebilera.eus

Agenda

Urriak 16, Osteguna

- 19:00-21:00

Ikusgarri zine aretoa

SAIL OFIZIALA.

EUSKAL ZINEMA LEHIAN

**48. Euskal Zine Bilerako sail
ofizialeko filmen proiektzioa**

→ **Exergo** ^{18' 16"}

JORGE MONEO QUINTANA

→ **Markelen gurutzea** ^{8' 8"}

ALBERTO BILBAO ARIZTIMUÑO

→ **Berandu** ^{7' 20"}

LOREA AZPEITIA ANTA

→ **Eraman zutela** ^{27'}

MIKEL BALERDI ARRUABARRENA
ETA DEÑE GARCIA-BRAVO ALBERDI

→ **Dear Death** ^{12' 58"}

MADDI HERNÁEZ SUSPERREGUI

→ **Pentsatzen dut** ^{16' 12"}

IRAITZ MATEO GOGORZA,
ALAIA MARTÍN ETXEBESTE ETA
KARMELE MITXELENA ETXEBESTE

Urriak 17, Ostirala

- 19:00-21:00

Ikusgarri zine aretoa

SAIL OFIZIALA.

EUSKAL ZINEMA LEHIAN

**48. Euskal Zine Bilerako sail
ofizialeko filmen proiektzioa**

→ **Xiberoa kantuz loraturik.**

Txoriekin hizketan ^{30'}

LORALDIA ZUZENDARIAK:
LARRAITZ ZUAZO ETA ANE
ROTAETXE

→ **Olentzerori Eskatu Nion** ^{7' 41"}

AMAILA SAN SEBASTIAN
LARZABAL

→ **Kamarada** ^{8'}

JON HIDALGO GEREÑU

→ **Planetagatik** ^{9' 35"}

ENEO MURUZABAL ELEZCANO

→ **Maritxu, nora zoaz?** ^{5' 22"}

ALEX ALTUNA TOJAL

→ **Inkognita** ^{7' 40"}

JULEN GOROSABEL ORTEGA

→ **Kume** ^{10' 54"}

XABIER LARRAZABAL INTXAURBE

→ **Arditurri** ^{8' 37"}

ANDER ARRIETA ODRIOZOLA,
OIHAN GASTES I ORTIZ ETA IBAI
ZARKETA MOYA

- 21:30

Ikusgarri zine aretoa

PROIEKTZIO BEREZIA

→ **Karmelo** ^{114'}

ASIER ALTUNA

→ **Bidean** ^{18'}

IMANOL G. GURRUTXAGA

→ **Ziklope** ^{11' 45"}

XABAT LERTXUNDI AIERTZA

→ **Dinosaurioak** ^{11' 41"}

KOLDO ALMANDOZ

→ **Azkena** ^{9' 7"}

LOREA LYONS ANDRACA ETA
ANA INES LANDETA URRABASO

- 17:00

Kultur Etxeko Azkue aretoa

PANTAILAK EUSKARAZ

- 19:30-21:00

Ikusgarri zine aretoa

**SARI BANAKETA ETA EUSKAL
ZINEAREN BEGIRADA**

Urriak 18, Larunbata

- 12:00-14:00

Ikusgarri zine aretoa

SAIL OFIZIALA.

EUSKAL ZINEMA LEHIAN

**48. Euskal Zine Bilerako sail
ofizialeko filmen proiektzioa**

→ **Ehiza** ^{30'}

AITZOL SARATXAGA SAENZ

→ **Erreka zoko hortan** ^{16'}

EKAITZ BERTIZ

Urriak 19, Igandea

- 12:00
Ikusgarri zine aretoa
PROIEKZIOA

→ **Akelarre: marearen kontra** ^{85'}
BIDEOGRAFIK

● 19:30
Ikusgarri zine aretoa
PROIEKZIO BEREZIA

→ **Karmele** ^{114'}
ASIER ALTUNA

Egileekin solasaldia

Urriak 20, Astelehena

- 20:30
Ikusgarri zine aretoa
PROIEKZIO BEREZIA

→ **Karmele** ^{114'}
ASIER ALTUNA

● Egun osoan zehar
Online
PALMARESA
www.zinebilera.eus web orrian

Urriak 21, Asteartea

- 19:00-21:00
Ikusgarri zine aretoa
ZINEGIN FESTIBALA EZBn

PROIEKZIO BEREZIA

→ **Oiogorri** ^{24'}
PETTE ETXEBARRIA

**LEHIAKETAZ KANPOKO
PELIKULA**

→ **Txillarreko Sukaldaria** ^{59'}
ASIER IBAIBARRIAGA APOITA
ETA EDURNE MARTIN
LARRAÑAGA

Egileekin solasaldia

Sail Ofiziala

Euskal zinea lehian

- Egunak: Urriak 16, 19:00
Urriak 17, 19:00
Urriak 18, 12:00
Espazioa: Ikusgarri zine aretoa

Euskara hutsez egiten den zinema jaialdirik zaharrena da EZB. Orain dela 48 urte Lekeitioko lagun talde batek zinema jaialdi amateur hura martxan jarri zuenetik, lau hamarkadatik gora daramatza euskarazko ikus-entzunezkoentzako topaleku izaten.

Gaur egun, Hazparneko Zinegin jaialdiarekin batera, euskara hutsez egiten diren lanen erakusleihoa da, eta euskarazko film laburren alorrean lehiaketa bakarra da gurea. EZBko Lehiaketa, euskaraz ekoiztutako askotariko lanen erakusleihoa da, teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu zein gai desberdinak biltzen dituen neurrian.

EPAIMAHAIA



Beñat Sarasola
idazlea



Itziar Atienza
aktorea



Miren Aperribay
zuzendaria
eta banatzailea

SARIAK

Edizio honetan ondorengo sariak banatuko dira:

Film onenaren saria: 3.000 €

Zuzendaritza onenaren saria:
1.600 €

Gidoi onenaren saria: 1.600 €

EITB ikuslearen saria: 750 €

Benito Ansoa saria: (2001. urtetik aurrera jaiotakoentzat) 1.000 €

48. SARI BANAKETA EKITALDIA ETA EUSKAL ZINEAREN BEGIRADA

Urriak 18 | 19:30 | Ikusgarri zine aretoa

Sail ofizialeko sarien banaketa Iranzun Mentxaka eta Iratxe Urkiagak aurkeztuta.

Olatz Salvadorren musika zuzenean.

Euskal Zinearen Begirada omenaldia **Pantailak Euskaraz** ekimenari Ibai Zabalak gidatuta.

PALMARESA

· Web atarian ikusgai urriaren 20an (egun osoan zehar)

· Euskal Zine Bileraren Zabalpena:

48. edizioko palmareseko filmen proiektzioa eta solasaldia parte hartzaileekin, Zinegin festibalaren baitan.

Urriak 16, Osteguna

19:00 Ikusgarri zine aretoa



Exergo 18' 16"

JORGE MONEO QUINTANA

Bilboko Arte Ederren Museoko margolan batzuen xehetasun periferiko edo ezkutuetatik abiatuta, emakume narratzaile batek margolan horiei lotutako historiak iraganeko zein egungo artisten baldintza sozial, ekonomiko eta psikologikoei erlazionatzen ditu.

Markelen gurutzeta 8' 8"

ALBERTO BILBAO ARIZTIMUÑO

Markelek, egunero gainditzen saiatzen den barne-errealitate bat bizi du.



Berandu 7' 20"

LOREA AZPEITIA ANTA

Aroa desesperatuta dabil aparkaleku bila. Ordea, lortzen duenerako berandu da eta, ondorioak, berriz, atzeraezina.



Eraman zutela 27'


MIKEL BALERDI ARRUABARRENA
ETA DEÑE GARCIA-BRAVO ALBERDI

Eraman dutela zioten garai hartan herritarrek; nor, nora eta zergatik galderei erantzun ezin ordea. Orain aldiz, Olaberria herriak bilatu ditu erantzunak; Martzelo Lasa eta Jesus Bujanda fusilatutako nork eta nola eraman zituzten oroitzak izanik dokumental honen jomuga.

Dear Death 12' 58"

MADDI HERNÁEZ SUSPERREGUI

Dear Death heriotzaren pertsonifikazioari zuzendutako ikus-entzunezko gutun bat da. Atsekabeari eta hiltzen garenean gertatzen denari buruzko gogoeta da. Film laburrak, ikuslea hipnotizatzeko, jabetza publikoko metrajea, jatorrizko metrajea, margolanak eta musika originala erabiltzen ditu.



Pentsatzen dut 16' 12"

IRAITZ MATEO GOGORZA, ALAIA
MARTIN ETXEBESTE ETA KARMELE
MITXELENA ETXEBESTE

Bea blokeatuta dago bere ibilbide artistiko eta pertsonalean. Amatasuna lan munduarekin uztartu ezinda dabil. Aurrera egin nahian, Nora lagunarekin plana egingo du, hain justu, emakume artisten ahanzturaren inguruko erakusketa batera joateko. Bertan ikusi eta sentitutakoak barrua inarrosiko dio.

Urriak 17, Ostirala

19:00 Ikusgarri zine aretoa

Xiberoa kantuz loraturik.

Txoriekin hizketan 30'

LORALDIA ZUZENDARIAK: LARRAITZ ZUAZO ETA ANE ROTAETXE

Goizero kantuz loratzen dira Xiberoako lurak. Tradizioaren gotorleku eta sormenaren lurralde. Emanaldi horren sormen prozesuari eskainitako begirada eta herrialde baten emozioen lekukotza da dokumental hau.



Olentzerori Eskatu Nion

7' 41" AMAIA SAN SEBASTIAN LARZABAL

Gauero hotel desberdin bat. Azken larrujotzea eta bere maitalearen begi hutsetara azken begirada. Emakume bat ihesean, gauero elkarriketa berdina, denbora milimetratuan. Nazkatu zen egunean eduki zuten azken elkarriketa.



Kamarada

8' JON HIDALGO GEREÑU

Elkarri nola lagundu ez dakiten bi lagun. Bi hauek dira, baina beste asko izan zitezkeen. Zer galdetzen dio entzuten ez dakienak hitz egiten ez dakienari?



Planetagatik

9' 35" ENEKO MURUZABAL ELEZCANO


Elikagaiak ikertzeko laborategi aseptiko batean, Mario eta Karla zientzialariek ingurumen-araudi gero eta zorrotzagoak bete behar dituzte. Maila absurduetara iritsita, Mariok bere nagusiarengana joko du irtenbide baten bila.



Inkognita

7' 40" JULEN GOROSABEL ORTEGA

1979ko ekainaren 10ean, zerbitzutik kanpo zegoen Polizia Nazional batek Francis izeneko transformista hil zuen. Gertakari hau Euskal Herriko LGTBIAQ+ mugimendua abiarazi zuen txinparta izan zen. Film labur honek gertakari hori aztertzen du belaunaldi gazteago baten ikuspegitik.



Arditurri


8' 37" ANDER ARRIETA ODRIUZOLA, OIHAN GASTESI ORTIZ ETA IBAI ZARKETA MOYA

Arditurriko meategiak 1984an itxi ziren. Espeleologo eta ikertzaile talde batzuek haien barrualdea aztertu nahi izan dute, haien egoera ebaluatzeko. Laster jakingo dute lurrraren erraietan ez dagoela iluntasuna bakarrik, zerbait gehiago ere badela...

Maritxu, nora zoaz?

5' 22" ALEX ALTUNA TOJAL


Ohearen isiltasunean, bi arnasa gurutzatzen dira. Urrunetik dator aspaldiko doinu bat: "Maritxu, nora zoaz?" Herriak beti emakumeari kantatutakoa baina beste izen baten atzean gordetako maitasuna izendatzekoa, ilunpetan egindakoa. Hitzak bihurtu ziren babesleku, beste norbaiti kantatzeko helduleku.



Kume

10' 54" XABIER LARRAZABAL INTXAURBE

Hoztu du, eta haizea hasi da herriko bazterrak astintzen. Hustu dira hustu beharreko etxeak, eta zabalik utzitako leihoek ematen dute gazteen patuaren berri. Iritsi baita beraien ordua. Oraingo gazte hauena ere bai. Hitzordua basoan da. Beti da han.



Urriak 18, Larunbata

12:00 Ikusgarri zine aretoa

Ehiza 30'

AITZOL SARATXAGA SAENZ

Mateo Txistu ipuin herrikoiairen prekuela: Euskal Herria, XIX. mende amaiera. Herrixka txiki batean, Mateo erretorea desagertu egin da arrastorik utzi gabe. Bertakoen amen-omenen aurrean, Artzapezpikutzak bi apaiz bidaltzen ditu gertakarien egia iker dezaten.



Erreka zoko hortan 16'

EKAITZ BERTIZ


Aita ohean gaixorik dagoela eta, Joxepik, Iparragirre baserriko alaba zaharrenak, bere gain hartu beharko du haren egitekoa: kontrabandoan pakete astun bat garraiatzea Frantziako mugaren beste aldera. Gau beltzean, karabineroak ez dira basoak ezkutatzen duen arriskurik beldurgarriena.



Bidean 18'

IMANOL G. GURRUTXAGA

Jakes (12 urte) basoan zehar dabil lasterka, noraezean galduta. Bidean, Amaia (27 urte) agertu eta etxera gonbidatuko du aterpea eskainiz. Bien elkartzeko honek Jakes bere beldurrei aurre egitera eramango du.



Ziklope 11' 45"

XABAT LERTXUNDI AIERTZA

Cristina ez dago ongi, baina ez senarrak dioen desorekagatik. Hautsita dago familiako sekretu izugarri bat aurkitu duelako. Min guztiaren erdian, Cristinak indarrak biltzen ditu euren bizitzak izorratu dituen egiako ziklopeari ausardiaz aurre egiteko.



Dinosaurioak 11' 41"

KOLDO ALMANDOZ

Enpresako jabe berriak eta gerenteak ikuspegi ezberdina dute arazoei aurre egiterako orduan. Gerenteak orduan langileekin aurrez aurre biltzea erabakitzen du. Negozioa ez doa ondo.

Azkena 9' 7"

LOREA LYONS ANDRACA ETA ANA INES LANDETA URRABASO

Loreak ama eta amama ditu erreferentzia gisa. Bi belaunaldi horien bitartez emakumeak amatasunaren inguruan bizi izan duen lotura ikusten du. Orain berari dagokio ama izan ala ez erabakitzea, eta egiteko dauden galderen erantzunak bilatzea.



Euskal Zine- aren Begirada



Euskal Zinearen Begirada
Pantailak Euskaraz ekimenari,
Ibai Zabalak gidatuta.

PANTAILAK EUSKARAZ

2021ean kezka bera partekatzen zuten hainbat ekimenen batuketatik eta elkarlanetik sortu zen Pantailak Euskaraz herri inizatiba; orokorrean, ikus-entzunezkoetan —zinean, telebistan, sare sozialetan, zein bideojokoetan— euskararen presentzia ezak bultzatuta, hamaika helburu jarri zituzten jomugan; besteak beste, egungo plataforma digital erraldoiei legez, hizkuntza koofizialean argitaratzera derrigortzea, zein, egungo beharizanei erantzuten, plataforma digital propio bat sortzea euskarazko edukiekin.

Lau urte beranduago, ekimenak egindako aurrerapausoak nabariak dira, izan ere, plataformetan eskuragarri zeuden euskarazko 70 edukitik 887 edukira igaro gara, eta, era berean, euskaldunok euskarazko edukiak kontsumitzeko Primeran eta Makusi bezalako plataformak ditugu Smart TVetan.

EZBrak urtero jartzen du bere begirada, euskal ikus-entzunezkoen alorrean ekarpen berezia egin duen eragile edo pertsona batengan. Horregatik, ekimenak orain arte egin duen lanaren aitortza gisa, eta etorkizunean lanean jarraitzeko pizgarri modura, aurtengo begirada saria Pantailak Euskaraz-entzat izango da.

► Eguna: Urriak 18
Ordua: 19:30
Ikusgarri zine aretoa

Zinegin Festi- bala



Hazparnen (Lapurdi) egiten den Zinegin festibala, euskarazko ikus-entzunezkoen topalekua da. Herri eta kultur eragileek elkarlanean eraikitzen dute jaialdia hau urtez urte.

EZB eta Zinegin elkarlanean arituko dira aurten ere bi ekimenekin: Batetik, Zineginen aurkeztutako “Oiogorri” film laburra proiektatuko da Lekeition eta, bestetik, EZBko film aukeraketa bat Hazparnen bertan ikusi ahalko da Zinegin festibalaren baitan, azaroan.

ZINEGIN PROIEKZIO BEREZIA

Oiogorri ^{24'}

PETTE ETXEBARRIA

Agustinek bere oiloa galdu du. Munduak konponbiderik gabeko aldaketak bizi dituelarik, Bilbotik abiaturik, mendiak eta oihanak zeharkatuko ditu oiloa aurkitu arte.

► Proiektzio eguna:
Urriak 21 - 19:00
Ikusgarri zine aretoa

Proiekzio Bereziak



Karme film

TXILLARREKO SUKALDARIA ^{59'}
DOKUMENTALA
Asier Ibaibarriaga Apoita
eta Edurne Martin Larrañaga



SINOPSISIA

Elgoibarko Txillarre baserria izan zen ETAk bere jardun armatuari amaiera emango zion prozesua abiaraziko zuen elkarriketen oinarri. PSE eta Ezker abertzalea mahai berean elkartu zituen Peio Rubio da horren erruduna. Bera da gure protagonista. Bere bizipenak eta hori gauzatzeko, sukaldari lanak.

- Proiekzio eguna:
Urriak 21 – 19:00
Filmaren egileekin aurkezpena eta solasaldia
Ikusgarri zine aretoa

Karmele ^{114'}
FILMA
Asier Altuna



SINOPSISIA

Karmele (Jones Laspiur) erizain euskaldun bat da, hogeita hamarreko hamarkada amaieran Frantzian erbesteratuta dagoena. Han, Txomin ezagutzen du (Eneko Sagardoy), tronpetista birtuoso bat. Bikoteak maitasun eta konpromiso politikoko istorio bat biziko du Paris, Caracas eta Euskal Herria artean. Elkarrekin familia bat osatuko dute, elkarrenganako konplizitate osoarekin, harik eta bi aukeraren artean erabaki behar duten momentua heltzen den arte: familia edo ideiekiko fidelotasuna.

- Proiektzio egunak:
Urriak 17 – 21:30
Urriak 19 – 19:30 + Filmaren egileekin solasaldia
Urriak 20 – 20:30
Ikusgarri zine aretoa
Sarrera 6€ / bazkideek 4€
Euskal Zinemazaleekin elkarlanean

Akelarre:
marearen kontra ^{85'}
DOKUMENTALA
Bideografik

ESTREINALDIA . ESTREINALDIA .

SINOPSISIA

Akelarre musika taldea 70. hamarkadan sortu zen plaza taldea da. Euskara hutsezko erreperitorioaren alde egiten lehenengotarikoak izan ziren eta euren rock abestiak, ingelesezko taldeen euskarazko bertsioekin nahasten zituzten. Euskal Herriko plaza gehienetan jo eta 16 disko atera ondoren, 2005. urtean utzi zuten eta ondoren beste bi bira egin dituzte. Orain, azken diskoa atera eta 20 urte geroago, euren ibilbideko errepasoa egingo duen dokumental batekin itzuliko dira.



- Proiektzio eguna:
Urriak 19 – 12:00
Filmaren egileekin solasaldia
Ikusgarri zine aretoa

HARROBIA



Lekeitioko gazteak Euskal Zine Bileraren belaunaldi berria izateko nahitik, jaialdia bera eta ikus-entzunezkoen jarduera hauengana hurbiltzeko asmoa duen proiektua da HARROBIA.

Taupa mugimenduarekin lankidetzan gazteen atxikimendua eta euskal ikus-entzunezkoen bidezko hezkuntza modu praktikoan balioan jartzea ditu oinarri.

Gaur egun, ikus-entzunezkoek —irudiak, soinuak, bideoak eta edizio-prozesuak barne— gero eta presentzia handiagoa dute eguneroko bizitzan. Gertutasun hori kontuan hartuta, 14 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako solasaldi-tailer praktiko bat eskainiko da, Zine Bileraren hasiera izango den Ikasle Goizetik abiatuta.

HARROBIAn zinea, bideogintza eta bideo-edizioa ardatz nagusiak diren arren, aurtengo edizioan berrikuntza gisa, bideopodkasten sorkuntza prozesua eta produkzioa jorratuko dira bereziki. Ikus-entzunezkoen bidez gazteak euskarazko sorkuntzan murgiltzea eta haien interesa piztea bilatzen da. Horretarako euskal zinemagileen eta ikus-entzunezkoen arloan diharduten erreferenteen esperientziak izango dira oinarri, beraien bizipenak eta errealitateak gazteei gerturatuz.

Klixka

Klixka ikus-entzunezkoen praktika eta esperientzia zabaltzeko asmoa duen programa da. Arropaineko Arraguarekin lankidetzan ikus-entzunezko artxibo baten ekoizpenaren esparrutik bideratzen da, sorkuntza garaikideko praktiketatik, analogikotik digitalera mugituz, eta alderantziz.



Klixka, alde batetik, urtean zehar garatzen diren ikastetxeei zuzendutako tailer praktikoek osatzen duten programazio bat da.

Tailerrak sorkuntzaren arloko sortzaileen ezagutza espezifikoetik abiatzen dira hainbat lan esparru (irudia, soinua, edizioa eta aplikazioak) barne hartuz. Beti ikuspegi esperimentaletik eta esperientzia gehigarri gisa irudien gizaritari dagokion belaunaldi batekin elkarlanean. Edizio honetako tailerren edukien sortzaileak Laura Ibañez, Andere Uriarte, Maider Illana eta ikastetxeetako irakasleak izango dira. Ikus-entzunezkoen sortzaileak Lekeitioko LHko ikasleak, DBH3ko ikasleak eta Batxilerraren 1-2ko ikasleak izango dira. Bestalde, sortutako artxiboa aplikazio ezberdinak diseinatzeko erabiliko da. Kasu honetan Klixka Espazioa izango da.

- Eskolape aretoa
- Urriak 16: 14:00-16:00 Ikastetxeak (LH)
- Urriak 17: 9:00-13:00 Ikastetxeak (DBH3 eta BATX 1-2)
- 14:00-16:00 Ikastetxeak (LH)
- 17:00-20:00 Publiko orokorra
- Urriak 18: 17:00-20:00 Publiko orokorra



Sola- saldia



Pantailen eragina euskararen normalkuntzan

Hitzaldi/Tailerra “Pantailak euskaraz” ekimeneko kideekin. Egitasmoa ezagutu eta plataforma erabiltzen ikasteko aukera.

Parte hartzaileak: Alex Aginagalde, Mikel Eizagirre eta Iñigo Arandia.

Gentzane Agirrek dinamizatuta.



► Urriak 18
17:00
Kultur Etxeko Azkue aretoa

Atzo8

**Ikus-entzunezko
ondare zinematografikoa
ezagutarazten**



ATZO8 bokazio argi batekin jaio da: euskal zinearen ondare materiala zein ez-materiala bildu, zaindu eta zabaltzea. Zine-Labekin lankidetzan, ekimen honek euskal zinemara bi ikuspegitatik hurbiltzea proposatzen du: dimentsio materiala esploratzea —euskarriak, testurak, genealogia teknologikoak— eta memoria aldarrikatzea. Biak ere praktika analogikoan oinarritutako sormen-prozesuen bidez.

Horrela, ATZO8ren hedapena bi norabidetakoa da. Alde batetik, esperimentazio garaikidea bultzatzen du lengoia artistiko eta politiko gisa zinema analogikoaren balio espresiboa berreskuratuz. Bestetik, euskal artxibo filmikoa ikustarazten eta aktibatzen du, hau biltegi estatiko gisa ulertu beharrean orainarekin etengabeko elkarriketan dagoen artxibo bizi gisa ulertuz.

2025 ETORKIZUNERAKO OINARRIA

ATZO8ren 2025eko edizioak oinarriak ezarri nahi ditu ondarea etorkizunean modu sendo, kritiko eta jarraituan landu ahal izateko. Hori dela eta, aurtun, barne lanean jarriko da fokua, proiektuaren jarraipena eta eragina ziurtatzeko epe ertain eta luzerako egiturak, metodologiak eta helburuak definitzen.

ONLINE PROGRAMA

Programak Irati Gorostidiren pelikula bat erakusten du. OT-IL (2020, 8 min, Super 8mm to Digital) Marilu okinaren keinuak erretratatzen ditu, eskuz ogia egiten berrogei urte daramatza. Okina eta zinemagilearen arteko topaketa bat da.



Eskerrik

Lekeitioko Euskal Zine Bilerak 48 edizio beteko ditu aurten, eta ibilbide hau egitea hainbat bidelaguni esker izan da posible. Horregatik, aurtengo familiaren parte izan direnak eskertu nahi ditu jaialdiaren antolakuntzak.

asko!

Ezin ahaztu, Euskal Zine Bilera antolatzea posible egiten duten babesleak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Eitb, HAZI fundazioa eta Cikautxo Kooperatiba. Eta, nola ez, Ikusgarri aretoa beteko duzuen zinezale, zinegile, eta euskaltzaleei. Duela 48 urte EZBren hazia jarri zutenei, urtez urte bidean batu direnei eta urtez urte alboan egoten jarraituko duten guztiei.

ANTOLATZAILEA

48. EUSKAL ZINE BILERA



LEKEITIO
geure
nortasunetik

Izan
Lekeitio



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HOKUNITZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



hazi



CARTONAJES
ERTABIL, S. A.
KARTOI KUTXAK



cikautxo

ELKARLANAK

zine—lab

ELKARLANAK

HITZA

ARRASUA



EUSKADIKO
FILMATEGIA
FILMOTECA
VASCA



Zinegin
FESTIBALA




Zineazaleak
Zabaltzen



TAUPA
Euskaltzaleten
mugimendua



ELÍAS
ZINE
ETXOLA



ESKURATU
PROGRAMA
DIGITALA
HEMEN

48. EUSKAL
ZINE
BILERA



LEKEITIO
geure
nortasunetik

zinebilera.eus

